

BEZEROEKIKO HARREMANAK



Bezeroekin izango dugun harremana automatizatua eta aurrez aurrekoa izango da.

Automatizatua izango da, webgunea erabiliko dugulako bezeroekin komunikatzeko. Bertara hainbat mezu bidaltzeko aukera izango dute suertatzen zaizkien zalantzak argitzeko edota gure produktua erosteko aukerarekin, denda fisikora joan beharra izan gabe. Beraz, esan dezakegu denda fisikoaz gain online denda ere izango dugula.

Aurrez aurreko metodoa ere izango da, lokal txiki bat izango dugulako eta bertan bezeroekin aurrez aurreko harremana izango dugu. Mariok duen lokala erabiliko dugu. Hau Tolosako Udaletxe plazan dago kokatuta.

Telefono zenbaki bat ere izango dugu dendan, edozein momentutan bezeroek gurekin komunikatu daitezten. Hori bai, telefonoa denda irekita dagoen denbora tartean soilik izango da erabilgarri.



Dendaren ordutegiari dagokionez, online denda, webgunea momentu oro zabalik izango dugu eskaerak egin ditzaten bezeroek, baina denda fisikoko ordutegia mugatua izango dugu. Astelehenetik ostiralera egingo dugu lan egun osoan zehar 9:30tatik arratsaldeko 20:00tara tartean atsedetik hartu gabe. Asteburuetan zein jaiegunetan ez dugu lan egingo.